

09/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO AZAROAREN 23AN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2016ko azaroaren 23an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Bakarne Olano Manzano, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN DEIALDIAN AURKEZTUTAKO ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA LEHENDABIZI KLASIFIKATU DENARI BALDINTZA PLEGUETAKO 23. KLAUSULAK ZEHAZTEN DUEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ESKATZEA.**

Prozedura ireki bidezko lehiaketa bidez Anoetako Udaleko “Etxez etxeko laguntza” zerbitzuaren kontratu administratiboa esleitzeko egin den espedientea azterturik.

Ikusi ondoren epe baliodunean BI (2) proposamen aurkeztu direla, hauei dagozkienak: **EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A. eta GARBIALDI, S.A.**

Udal Gizarte langileak eginiko txostenak ikusi ondoren.

2016ko azaroaren 21ean ospaturiko Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Prozedura ireki bidezko lehiaketa bidez izapidetutako proposamenak baliozkotzat ematea.

Bigarrena.- Aurkezturiko proposamenak ondorengo eran klasifikatzea:

1. **Eulen, Servicios Sociosanitarios, S.A, 96,4553 punturekin**
2. **Garbialdi, S.A, 91,50 punturekin.**

Hirugarrena.- Eulen Servicios Sociosanitarios, S.A enpresari jakinaraztea eta eskatzea, ekonomia eta administrazio baldintza berezien pleguko 23. artikularen arabera, akordio honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 lanegunetan, udaletxeko Erregistro Orokorrean ondorengo dokumentazioa aurkeztea:

- a) Behin betiko bermea jartzea, eta hala badagokio, berme osagarria ere bai.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea, baldin eta proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu.
- c) Eskatutako aseguru polizen eta ordainagirien kopiak aurkeztea.
- d) Hitzemandakoaren arabera, kontratua betetzeko jarriko edo atxikiko dituen baliabideak benetan jarri dituela egiaztatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 64.2 artikuluari jarraiki.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, goizeko hamaikak eta hamar minutu direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.